

Biziraupena, dirua eta helburua

Deia, 1977-08-10.

Gizona beti biziraupenaren bila ibili da.

Biblia bidez ezagutu ditugu mila urteko Matusalen bat edo beste, baina honenbestekoaz etsi duenez, ehun urteko biziraupena geratu zaigu luzeenetako marka bezala.

Osasun onaren oinharrietako bat, janaria denez, dirua erakutsi da askotan biziraupenaren lagungarri bezala.

Hau nabarmenki egiztatzen da hirugarren munduan goseak egunero egiten dituen hilketekin, gizartearentzat, lotsagarriak. Hala ere, gizartean ez da beti hilkortasun edo mortalidade hau diru eta janari eskasiarekin lotzen. Jakina da gehiegi jateak eta edateak osasunari kalte handiak ekartzen dizkiola, eta herri aberatsetan nabarmena da janarien koipe eta beste mantenuak osasunaren aurkako dituzten arrixkoak.

Diruak ba du, bada, kaltegarri den gehiegikeri hau ere.

Baina egun hoietan, biziraupen hontaz zer ikusia duen zerbait heldu zaigu munduko bi lekutatik: Sobietarren Azerbaijan errepublikan egiten ari diren filma bateko pertsonaje nagusiak (Mendzhid Agayev) 143 urte ditu, eta gazteenak (bere emazte den Jatun) 97; filma honen gaia, mendietako 123 senideko sendi baten historia da. Bestalde, Perun, Lima-tik gertu dagoen ballara batean, han bizi den musker luze (40 zentimetro) bat jaten dutelako edo, oso luze bizi omen da jendea.

Bi leku hoietan berdina dena da, mendian, giro paketsuan eta janaria falta ez zaioten tokian bizi direla.

Baina gizonaren irau-nahi honek beste laguntzarik ez badu, ez du gizarteak asmakizun handirik egin.

Ez da bizirik gizona irau araztea bakarrik; gizon hori adin batera iristen denean, zertan geratzen denak erakusten du gizartea bere humanismoan noraino heldu den.

Orain dela bizpairu egun, hemen agertu zen reportaje batean adindun batek esaten zuenez: "Nik hil nahi dut, traba bat besterik ez bait naiz".

Etsipen honek, eta ez gizonaren biziraupenak, kalifikatzen du gizarte bat.